

# BIZITZAREN AMAIERARAKO LAGUNTZA ESPIRITUAL ETA ERLIJIOSORAKO DEKALOGOIA

Pastoraltza Misio Ospitalarioan

## OSPITALARIOAK FUNDAZIOAN KONPROMISO HAUEK DITUGU:

### 01 KALITATEZKO ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEA, HUMANIZATUA ETA PERTSONALIZATUA.

Profesionalen diziplinar-teko talde bat jartzen dugu zure eskura, zure behar fisiko, psikologiko, sozial, espiritual eta erlijiosoei erantzuteko modu koordinatuan diharduena. Nahi baduzu, Pastoral-tza eta Arreta Espiritual eta Erlijiosoko Zerbitzua eskura duzu (PAEE); zentroko edozein profesional-ek emango dizu kontaktua.

### 02 ENPATIAZ, PRESENTZIAZ ETA ERRESPE-TUZ ENTZUTEA.

Zure beharrak hartzen ditugu kontuan, baita espiritualak eta erlijiosoak ere, entzute aktibo baten bidez, aurreiritzirik eta presarik gabe. Kasu askotan, kezka eta mina eragiten digun hori arretaz, errukiz eta errespetuz entzuten duen norbaiten aurrean askatasunez adierazi ahal izatea, berez, esperientzia erabat sendagarria izan daiteke.

### 03 ESPIRITUALKI LAGUNTZEA, ZURE EZAUGARRIAK SAKON ERRESPE-TATUZ.

Pertsona bakoitzak modu bakanean bizitzen ditu bere bizitzaren azken etapak. Zure historia, sinesmenak, balioak, emozioak eta erabakiak errespetatzen ditugu, eta laguntza humano eta transzendentea eskaintzen dizugu, zure bizitzaren unera egokituta.

### 04 ELIZA KATOLIKOAREN ZERBITZU ERLIJIOSOETARAKO SARBIDEA ERRAZTEA.

Nahi izanez gero, sakramentuak jaso edo zentroan antolatzen diren beste ospakizun liturgiko batzuetara joan zaitezten saiatuko gara, betiere zure egoera kliniko eta pertsonalera egokituta.

### 05 LAGUNTZA ERLIJIOSOA BILATZEN LAGUNTZEA, BESTE SINESMEN BATZUK BADITUZU.

Beste konfesio edo tradizio espiritual bateko kide bazara, konpromisoa hartzen dugu zure bizitzako une honetan kontsolamendua eta zentzua eskaintzeko beste erreferente edo baliabide erlijioso batzuk eskuratzen laguntzeko, ahal dugun neurrian.

### 06 ZURE FAMILIARI ETA ZURETZAT ESANGURATSUAK DIREN PERTSONEI ERE LAGUNDU ETA ZAIN-TZEA.

Badakigu zure ingurukoek ere sufrimendu espiritualak izan dezaketela, nekea, ziurgabetasuna... Horregatik, gertutasun emozionala eta laguntza espiritualak eta erlijiosoak eskainiko diegu, hala nahi badute, betiere zure prozesuaren konfidentzialtasuna errespetatuz.

### 07 ARTATZEN ZAITUZTEN PROFESIONALAK ZAIN-TZEA.

Zaintzen zaituzten profesional-ek zeregin teknikoak eta humanoak betetzen dute lanean. Gure konpromisoa da, eskatzen dutenean, gertutasun emozionala eta laguntza espiritualak eta erlijiosoak ematea, haien ongizatea, misioaren zentzua eta barne bizitza zaintzeko.

### 08 KOMUNITATE APOSTOLIKO OSPITALARIO GISA PRESENTE EGOTEA.

Gure burua eskaintzen dugu, ez soilik eginkizun asistentzialerako, baizik eta fede, hurbiltasun eta itxaropen komunitate gisa, hospitalitatearen karisma ikusaraziz. Nahi baduzu, zure alde, zure familiaren alde eta bizitzen ari zareten prozesuaren alde otoitz egingo dugu, asmo horiek gure ospakizun liturgikoetan txertatuz.

### 09 BAKARRIK BAZAUDE, MODU BEREZIAN LAGUNTZEA.

Gertuko pertsonarik ez baduzu, komunitate ospitalario gisa, zure ondoan egon nahi dugu, konpainia eta hurbiltasuna eskainiz, prozesu osoan lagun bat izan dezazun.

### 10 ADISKIDETZE ETA AGUR PROZESUETAN LAGUNTZEA.

Bizitzaren une honetan ohikoa da norberaren historia erre-pasatzea, bizitakoa esker onez aitortzea, eta konpondu gabe geratu zen horri aurre egitea, bakea aurkitu ahal izan dezazun. Nahi baduzu, erre-pasoa egiteko eta zure buruarekin eta beste pertsona esanguratsu batzuekin adiskidetzeko prozesu horietan lagunduko dizugu.